

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak mediku espezialisten erretiroa atzeratzeko baimena eman du, profesionalak kontratatzeko dagoen zailtasunagatik

Banan-banan emango dira baimenak interesdun pertsonak aldeztatik horretarako eskaera eginda, beti ere egiaztatzen denean ez dagoela ordezkorik kontratazio-zerrendan edo, egonik ere, ez dutenean kontratua onartu

Asteazkena, 2017.eko otsailak 22

Nafarroako Gobernuak gaur goizean erabaki du Osasunbideako eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko arlo guztietako mediku espezialistei, behin nahitaezko erretirorako adina bete ondoren, lanean jarraitzeko baimena ematea, haiek ordezeko zailtasunak daudenean, ez dagoelako inor kontratazio-zerrendan edo, egonik ere, ez dagoelako ordezte-kontratua onartuko duen izangairik aurkitzeko aukerarik.



Gobernuak mediku espezialisten erretiroa atzeratzeko baimena eman du..

Ez-ohiko neurri hori jasota dago Nafarroako Administrazio Publikoetako langileen arloko premiazko neurriei buruzko Foru Legean, eta helburua da herritarrei osasun-zerbitzu egokia ematen zaiela bermatzea. Aukera ematen du Osasunbideako eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Arreta Espezializatuko arlo guztietako mediku espezialisten eta Lehen Mailako Arretakoen erretiroa atzeratzeko; gaur egun 65 urtetan ezarrita dago.

Banan-banan emango dira zerbitzu aktiboa luzatzeko baimenak, urtebeterako, interesdun pertsonak aldeztatik horretarako eskaera eginda, beti ere egiaztatzen denean ez dagoela ordezkorik kontratazio-zerrendan edo, egonik ere, ez dutenean kontratua onartu. Gainera, baimendutako unean betetzen ziren baldintzak mantentzen badira, luzatu egin daiteke baimendutako luzapena.

Hamar urtean Osasunbideako 666 profesional erretiratuko direla aurreikusten da

Espezialitate batzuetan dagoen profesional faltaz gain, Osasun Departamentuak egiten duen erretiro kopuruaren aurreikuspena dago. Gaur egungo araudiaren arabera, datozen 10 urteetan 666 mediku espezialista erretiratu litezke; horietatik 188 Lehen Mailako Arretako

medikuak dira. Erretiro kopuru handia aurreikusten da beste arlo hauetan ere: Larrialdietako Ohiko Zerbitzua (51), Pediatria (50), Ospitalez kanpoko Larrialdiak (34) eta Ortopedia eta Traumatologiako Kirurgia (23).

Urtez urte, 2026. urtera arte aurreikusitako erretiro guztietatik, 39 espero dira 2017rako; 44 2018rako; 82 erretiro 2019rako; beste 68 2020. urterako; 2021erako, 64; 2022rako, 80; 2023rako, 71; beste 90 erretiro 2024rako; 2025. urterako 73 eta, azkenik, 55 erretiro 2026. urterako.